

Gorka Erostarbe Zarautz

Haurtzarotik asko irakurri du Anjel Lertxundik (1948, Orio, Gipuzkoa). Eta haur zenetik irakurri ditu gaixotasunekin loturiko literatur liburuak ere. «Gogoan ditut *Cuerpos y almas* [Maxence Van der Mersch egile frantsesarena da] edota Archibald Cronin idazle eskoziarraren *La Ciudadela*. Horretan mediku bat da protagonista, eta meatzari jendearekin lan egitea egokitzen zaio. Hango miseriak kontatzen ditu». Geroago etorriko zitzaizkion Albert Camusen *Izuri* eta Thomas Mannen *Mendi magikoa*. «Bizi batek ez du benetako neurria erakusten talka egin arte nahigabearik», dio Zu liburuan (Erein). Literatura egiteko ez du ezinbestekotzat jotzen nahigabearik talka egitea. «Izan liteke dibertimendurako, entrentimendurako, ihes egiteko... baina ihes horren atzean, alde edo molde, beti dago ifrentzua, oinazea edo haren partea. Pertsona berez baita inugatu, ez baita betiko».

Emazteari minbizia diagnostikatu ostean ondutako liburua da *Zu* –hala deitzen dio emazteari liburuan–. Gertaera gogorak kontatzen dituen arren, ez da liburu hita: «Hori nahi nuen. Ez dadila izan liburu lakrimogeno bat, gaitzaren kontuak kontatzen ditudan arren, gure errealitatean ez baita horrela izan». Badu saiakeratik, badu eleberritik edota «dieterio hibridotik», idazleak irribarre txiki batez dienez. Kritikak laudorioz hartu du Lertxundiren ariketa estilistikoa eta edukizkoan arteko komunikadura, inoiz baino *ni*-agotik aritzea. Gaitza presente izanik ere, «nahiko une onean» dira bai *Zu* eta baita bera ere, kimioterapia saiotik saiorako bi hilabete inguruko atsedendaldi horretan, «oporretan, guk diogun modura».

Emazteari pankreako minbizia diagnostikatu ondoren apunteak hartzen hasi zinen. «Nola jaso eta ulertu hurkoaren mina hitzaren laguntzarekin ez bada?», diozu liburuan.

Momentu larrietan gertatzen ari dena berbalizatzeak denoi laguntzen digu, eta nolabait zedarritu ere egiten du egoera. Hitzari esker, badakizu zer eremutan zabiliz. Markatu ere egiten du. Orain gaztelaniazko itzulpena zuzentzen ari naiz, [Gerardo Markuleta ari da horretan] eta batzuetan pentsatzen dut: «Liburuan esaten ditudan aplikatzea tokatzen zait orain...». Hitzaren bidez, hor geratzen da jarrera bat idatzia, eta norberaren konpromisoa ere markatua geratzen da.

«Prosa poetikoa egiteko giltza gertuago dut»

Anjel Lertxundi • Idazlea

Hurkoenaren gaitza ardatz hartuta, eguneroko bizitzaren kontaketa eta apologia egin du Lertxundik 'Zu' lan pertsonalean; egunerokoari erreparatu eta biziz idatzi; idatziz bizi.

Hala ere, apunteak hartetik liburu bat argitaratzera urrats bat dago.

Ez zegoen hori kalkulatu, nahiz eta idazleak zerbait apuntatzen duenean beti egon litekeen egunen batean hori kaleratzeko aukera. Gero eta gehiago ari ginen biok *ars vivendi* baten inguruko gogoetak egiten, eta gogoratzen naiz Anatole Broyardek esaten zuenean «gaitzaren aurrean, bizitzaren aurrean bezala, estilo bat landu behar da». Behin, bazkalatzen ari ginela, emazteak berak animatu ninduen argitara ateratzera, baina gehitu zidan: «Hau ez duzu ni hildakoan argitaratuko, ezta? Bestela, esaten ari zarenen arabera, hori porrot baten istorioa litzateke». *Ars vivendi* baten lekukotza ematen duen istorioa da liburu, beraz.

Behin liburuari forma emanda, Zuk irakurri zuen, edo tarteka irakurtzen zituen pasarteak?

Berekin oso zerikusi zuzena duten kontuak, bere pentsamenduari buruzkoak, demagun erlijioari dagozkionak, horiek denak berari pasatzen nizkion eta irakurtzen zituen, eta inoiz baita zehaztu ere, edo fiabardurak egin. Ahal den fidelen jaso nahi nuen berak pentsatzen zuena edo irizten ziona kontuari, baina liburu praktikoki argialetxera bidaltzeko moduan zegoenean pasatu nion, eta ez zuen lehen bost-hamar orrialdeetatik aurrera egiterik izan. Harrezkero, irakurri ditu beste pasarte batzuk, jendeak komentatu dizkionak eta abar. Halako beldur eszeniko bat dauka liburu guztia irakurtzeko, baina

esaten du baietz, hartu behar duela lehen edo beranduago. Nik esaten diot ez obsesionatzeko horrekin, eta ez irakurritza ere ez dela ezer pasatzen.

Azaltzen duzu intimitatearen mugekiko kezka bat, morboan erortzeko arriskuarena. Zein muga jarri dizkiozu idazketari?

Ez diot mugarik jarri. Oso natural joan dira gauzak, eta, jartzekotan, jarriko nizkion beste gauzetan jartzen dizkiodan muga berak. Emaztea eta biok osatutako *Gu* horretatik *Gu* zabalago batera joateko garaian izan dut kezka. Arantxa Urretabizkaik zioen moduan *gu* horretan *gu* asko baikaude.

Formari dagozkionez zure inoizko liburu pertsonalea izan liteke Zu. Ni-aren literatur aroa bizi dugu askoren iritzian. Ezkutua ala nabariago, ni-rik gabeko literatura posible al da?

Erromantizismoa arte *ni*-a kanpo geratzen da, eta erabat gaizki ikusia dago; literatura objektibo bat idatzi behar da *ni*-a aparte utzita. Sentimenduen agerpena estilo falta bat da, ahultasuna eta abar. Iraultza ekartzen du erromantizismoak *ni*-a jartzen duenean artegintzaren zentroan. Gero hori gauzatu da oso modu diferenteetan, absurdoaren literaturatik hasi eta beste hainbat esperientziataraino. Baina kurio-
soa da: klasizismoaren garaian, Malherbe frantsesa zegoen konatsideratua poeta oso ona baina oso hotza, arauak eta inork ez bezala betetzen zituen, baina zerbait falta, gorpuzta, haragia... Se-me-a hiltzen diote, eta orduan eskaintzen dio oda luze bat;

literatura frantsesean jotzen da poesia hoberentzat. Zergatik? *Ni*-a manifestatzen delako, ezagutzaz aparteko zerbait jarri, bihotza ere jarri.

Ni-tik idazteko esperientzia horrek eman diezazuke bide berri-rik idazkuntzari dagozkionez?

Egokiera gertatuko balitz, bai. Defoek bazekien hamar urte lehenago *Diario del año de la peste* idatziko zuenik? Bera zebilen bi-deetan ez dago arrastorik ere gero-
ra idatziko zuen kronika har-taz. Baina egokiera datorkionean literaturan dagoen kronikarik bi-kainena idatzen du. Inguruan zer gertatzen zaizun, zeri errepara-tzen diozun... Okasioa sortu aha-la, zergatik ez. Badago kontu bitxi bat. Hemendik hamar edo hogei urtera zer izango den gure gizar-tea ez dakigu. Inork ezin dezake jakin, baina haren haziak gure ar-tean dauzkagu, eta gu ari gara ho-riek ereiten. Ez gara kontziente zer ereiten ari garen. Ez gara hori ikusteko gauza.

Aldi bakoltzak eskatzen dizu idazketa forma bat? Aurrez ez duzu egiten formaren inguruko gogoetarik?

Orain arte, behintzat, idatzi aurretik ere planteatu izan dut for-ma, zer eredurekin jotatuko nu-keen. *Zu*-n ez, askoz ere bat-bate-koagoa izan baita. A *posteriori* etorri dira gogoetak eta une jakin batzuetan aldaketak estrategian; narratzaileak txandakatzea lehen pertsonatik hirugarrenera... Bai-na hizkera zuzena eta ia-ia kroni-katik hurbil dagoen estiloa gaik berak ekarri du.

Beti esan izan duzu poesiaren

bare giltza ez duzula topatu. Li-buru honetan bada poetikotasunetik, eta tarte honetan Mont-aleren poemak itzuli dituzu Munduko Poesia Kaierak egi-tasmorako. Giltza hori hurbilago duzu?

Prosa poetikoa egiteko bai, akaso. Baditut gauza batzuk buruan oso gertu daudenak prosa poetikotik. Baina hortik aurrera... Nik lehe-nik idatzi nituen gauzak poesi-aren, eta gaztelaniaz. Orduan sen-titzen nuen nire ahotsa poesian, eta gero ahots hori euskaraz topa-tzea zailagoa egiten ari zaidan edo... Kosta egiten zait nire ahotsa topatzea. Hor badago nik neuk aztertu ezin dudana gauza bat.

Inoiz ez da berandu, ezta?

Ez, ezin jakin...

Gaitz fisikotik abiatuta, beste gaitz sozial batzuetara ere egi-ten duzu bidea liburuan: sexis-moa, erlijioaren dogmatismoa, ustelkeria...


Gaitz fisiko hori denbora jakin ba-tean gertatzen da, eta denbora ja-kín horretan gertatzen ari dira beste gauza batzuk ere. Hasiera-tik oso garbi neukan gaitza ezin zela isolatu errealitate jakin bate-tik; guk geuk ez genuela isolatu behar, guk geuk momentu horie-tan guztietan jarraitzen genuen egunerokotasuna, eta nire ka-suan zutabeak egiten ditut egu-nero BERRIAN eta derrigortua nago egunerokoa jarraitzea. Agertzen dira kontu horiek, eta harreman dialektiko bat dago. Kantzerra ustelkeriaren metafora bezala erabiltzeak ematen dii aitzakia gero hitz egiteko horretaz eta abar... Ematen diu ugaritasuna eta normaltasuna ere, neurri ba-tean, kontaketari. Egia da gizarte-ak sozialki deserosoa zaion guztia isolatzeko joera bat duela, gaitza-rekin bezala beste hainbat gora-beherarekin, eta liburuak ez du hori egin nahi izan.

Esaterako, ez duzu isolatzen se-xismoaren gaia. Besteak beste diozu literatura modernoan ez duzula heroi eta antiheroi mas-kulorik ezagutu negar egiten.

Bai, ahuldadetzat hartu izan da, eta gizonezkoak negar egiten ez bagenek bezala azaltzen gara.

Feminismoa ari zaio astinaldi eder bat ematen garaioetako gi-zarteari, eta literaturari ere bai. Nola eragiten dio horrek Anjel Lertxundi sortzaileari?

Interes handi batekin jarraitzen dut. Momentuan ez da jakiten zein diren diskurtso zuzenak, baina berrienak hortik datoz, fe-minismotik. Eta nola ez arreta ja-rri hortik datorren guztiari, eta ez emakume kondizioari sollik, bai-zik eta erreparatzeari emakume-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

en kondizioari gizartearen txertatua eta giza harremanetan txertatua. Hor bada diskurtso bat oso interesgarria, jarraitzekoa; eta Euskal Herrian eta euskaraz bereziki gauza asko entzuten eta irakurtzen ari gara; arretaz hartu behar den kontu bat da. Lehen esaten nuen etorkizunaren seinaleak hemen daukagula jada, bada, hara hor!

Eta hor dago sortzailearen posizioamendua ere. Liburuan azaltzen da kezka bat: erlatibismo moralaren eta dogmatismoaren artean nola jokatu...

Etika desbinkulatzen baduzu beste gorabehera guztietatik, dogmatismoan erortzen zara, eta ez daukazu beste biderik. Elizak bere historian hainbeste praktikatu duen moldean. Eta badago beste elementu distorsionatzaile bat: erabat erlatibizatzea interesen arabera, eta ez, gainera, interes sozial edo kolektiboaren arabera, baizik eta komenentziaren arabera. Bada kultur sorkuntzan merkatu hori ere: «Saltzen dizut etika eta morala, segun zer zirkunstantzietarako, eta segun noiz». Bi horien artean dago norberaren



Beti egin zait mugako lurralde hori oso interesantea, ez duda eta ez segurtasun erabatekoak»

«Orain artean, idatzi aurretik ere planteatzen nuen forma; Zu'n ez, bat-batekoagoa izan baita askoz ere»

«Momentuan ez da jakiten zein diren diskurtso zuzenenak, baina berriena hortik datoz, feminismoak»

jardun pertsonala eta zein irizpiderekin egiten duzun bizitzan, eta bestetik dago, talde bateko parte izatea, herri eta kultura batekoa, eta egiten duzu itun bat.

Eta itunak konfliktiboak dira.

Itun guztiak beti dira konfliktiboak, itun sozial bat eta itun bat zure kontzientziarekin. Gure gurasoek oso ondo zekiten une bakoitzean zer egin behar zuten: goitik etortzen zitzairen mandata. Gustura edo ez gustura, jada markatuta zuten norabidea, Eli-

zak sekulako pisua zuen gizarte batean bizi baitziren. Guk unean unekoa erabaki behar dugu, eta ez daukagu gauzak garbi, gainera. Egunsentiaren argia ikusi dugu, baina ez dakigu argi hori zein zentzu eman. Eta oso zaila da beti alerta egotea. Baina giza esperientziaren aldetik begiratu, eskerrak erabaki behar hori daukagun, ze horrek ematen digu autonomia gutariko bakoitzari ahal den mundualdi txukunena egiteko, norberaren kontzientziarekin eta norberaren gizartearekin.

Hezkuntza kristauaren zama kitatzen ari zara azken lanetan?

Guri txikitzen puntziarekin sartu ziguten hura ez da gure girokoa bakarrik, Europa guztiko giro baten eragina da, gauza kultural eta soziala da, erabat txertatua dagoena. Gaur bere burua guztiz ateotzat daukan horrek ere hainbat egoeraren aurrean praktikatzeko du pentsamendu magiko delitzen duen hori. Hain presentzia inportantea duen kontu bat norbaiten baitatik erabat erazteko ezinezkoa da. Baina ariketa egin beharra dago, eta kontura-

tzen naiz ondo etortzen ari zaidala. Azken urteetan ariketa horretan saiatu naiz, eta jarri nau egokiera batean non ez diodan ezertxori ere aterik ixten; hori bai, mundu honetakoa den edo zeri, hemendik kanpokoa alбора lagata.

«Deabruaren begirada ironikoa eta aingeruaren esperantzakoa» alpatzen dituzu liburuan, Kunderaren hitzak ekarriz. Zein begirada eskatzen du euskal kulturgintzak orain?

Ez bata eta ez bestea ez dira soberan. Maurits Escher aurreko mendeko hasierako pintorea zen. Nire Hunik arrats artean liburua egile honen marrazkia du azalean. Nik ez nekien berea zenik, eta ezta bera zein zen ere, diseinua Alberto Corazonek egin baitzidan. Hor txoriak eta arrainak daude, eta metamorfoseatzeko doazen elementuak dira; arrainak, gorantz joan ahala, txori bihurtzen hasten dira. Metamorfosi horretan badago momentu berezi bat: muga. Noloz uzten dio arrainak izateari eta hasten da txori izaten. Muga hori. Askotan esaten dut filosofia ikasi nuenean

bagenuela asignatura bat, une hartan asmatua, filosofiaren eta teologiaren arteko talka, arrazoiaren eta fedearen arteko islatzen zuena. Izena zuen *Cuestiones fronterizas* (Mugako kontuak). Niri beti egin zait mugako lurralde hori oso interesantea, ez duda erabatekoak, ez segurtasun erabatekoak ere.

Bizitzan zeure buruarekin exigente izaten eta besteekin indulgente izaten salatu zarela diozu liburuan. Hor ere mugaren kontua. Nola asmatu?

Lehendabizi, leziarik ez ematen, ez doktrinatzeko. Ez dut uste idazle eta artista baten obra inor doktrinatzeko denik, baizik eta galderak egiteko, bere ikuspuntuak kontatuz posibilitate batzuk aurkezteko. Gero irakurlea edo ikuslea da horietatik komeni zaizkionak hartzen dituen eta komeni zaizkionak baztertzen dituen. Orain, norberaren buruari ahal den eta galderarik zorrotzenak eginez hori bai, norbera konprometitzatzen esaten dituen horiekin. Baina hartzailea libre da nire proposamenak zakarrontzira botatzeko, besterik behar genuen!